

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

595/2024 Foru Agindua, azaroaren 21ekoa. Maitane Sáenz de Buruaga Zabala bitarteko funtzionario izendatzea, Zalduondoko Udalak eta Arabako Lautadako Kuadrillak eraturako Elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, lanpostua batera mantentzeko

2024ko azaroaren 5ean, Zalduondoko alkateak, elkarteko lehendakari gisa, eskatu zuen Maitane Sáenz de Buruaga Zabala izendatzeko Zalduondoko Udalak eta Arabako Lautadako Kuadrillak eraturako Elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, 2024ko azaroaren 7tik aurrera.

Elkartea duela gutxi eratu da, eta sortu berri den lanpostua da; beraz, oraindik ez da behin betiko bete.

Espedientean jasotzen denez, ekainaren 5eko ALHAOn (63. zk.) iragarki bat argitaratu zen, lanpostu hori estaturako gaikuntza duen funtzionario batek behin-behineko izendapenaren, zerbitzu eginkizunen edo metaketaren bidez betetzeari buruzkoa, baina ez zen eskaerarik aurkeztu.

Jasota dago, era berean, Eusko Jaurlaritzak ezezkoa eman ziola, 2024ko urriaren 29an, elkar-teak irailaren 2an egindako eskariari, estaturako gaikuntza duten funtzionarioentzat gordetako lanpostuak bitarteko gisa betetzeko autonomia erkidegoko lan poltsako izangaia izendatzeari buruzkoari.

Lanpostua ezin izan denez aurreko bitartekoen bidez bete, eta Guardiako Udalak indarrean dagoen lan poltsa bat duenez duela gutxi izapidetu den idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko lehiaketa oposizioaren ondorioz, zeinak berdintasun, merezimendu, gaitasun, publizitate eta bizkortasun printzipioak bete baititu, urriaren 29an, elkar-teak Guardiako Udalarekin lankidetzeta hitzarmena sinatu zuen, idazkari-kontuhartzaile lan poltsa lagatzeko. Hitzarmen horretan berariaz aipatu zen lan poltsako kideek alde aurretik baimena eman zutela elkarteari datuak lagatzeko, eta datuak babesteko araudia bete behar zela.

Espedientean jasota dago lan poltsako kide guztiek uko egin diotela izendapenari, proposatutako pertsonak izan ezik, zeinak C1 hizkuntza eskakizuna baitu. Era berean, Arabako Lautadako Kuadrillako hizkuntza normalizazioko teknikariaren txostena ere jaso da. Horren arabera, indarrean dagoen araudiaren arabera, bidezkoa da Zalduondoko Udalak eta Arabako Lautadako Kuadrillak eraturako elkarteko idazkari lanpostua betetzeko 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatu duen hautagaia aldi baterako kontratatzea, kontratazio prozesu osoan ez baita azaldu 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatu duen inor (lanpostuak eskatzen duena).

Hori oinarri hartuta, elkar-tearen lehendakariak proposatu du Maitane Sáenz de Buruaga Zabala izendatzea, bera baita izendapen proposamena onartu duen lan poltsako kide bakarra. Epearen barruan aurkeztu ditu sartzeko baldintzak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak, bai eta izendatu aurretik aurkeztu beharreko gainerako dokumentazioa ere.

Bat etorri 128/2018 Errege Dekretuaren 53. artikulua xedatutakoarekin:

1. Ezinezkoa denean gordetako lanpostuak estaturako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionarioen bidez betetzea, eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak 10.4 artikuluan xedatutakoa gorabehera, toki erakundeek autonomia erkidegoari proposatu ahal izango diote, betiere berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate irizpideak betez, bitarteko funtzionario bat izenda dezala, A1 azpitaldera sartzeko eskatutako tituluduna.

Edonola ere, kontuan izan behar da zer xedatzen duen Estaturako gaikuntza duten toki administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 54. artikuluan:

“Lanpostua behin betiko bete, titularra itzuli kapitulu honetan jasotako kasuetan, edo behin-behineko izendapena eginez gero, zerbitzu eginkizunetan edo zeregin pilaketan, lanpostua behin-behineko funtzionario edo bitarteko funtzionario batek betetzen badu, automatikoki kargugabetuko da lanpostu hori betetzen ari zena”

Bat etorri Euskararen erabilera Euskal Sektore Publikoan normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 37.4 artikuluan jasotakoarekin, C2 hizkuntza eskakizuna duten eta derrigor-tasun data igarota duten lanpostuak hautatu eta betetzeko prozesuetan, hautagaietako batek ere egiaztatzen ez badu, lanpostu horri nahitaezko C1 hizkuntza eskakizuna aplikatuko zaio, hautaketa edo hornikuntza deialdi horretan betetzeko soilik.

Bat etorri Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.4 artikuluan xedatutakoarekin, bitarteko funtzionarioaren izendapenetik hiru urte igarotakoan amaitu egingo da bitarteko harremana.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 53. artikuluan xedatutakoari jarraitu zaio.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Maitane Sáenz de Buruaga Zabala izendatzea, 2024ko azaroaren 7ko ondorioekin, Zalduondoko Udalak eta Arabako Lautadako Kuadrillak eratutako Elkarteko idazkari-kontuhartzaile lanpostua bitarteko gisa betetzeko, hura legez bete arte, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, behin betiko izendapenaren bidez, behin-behineko izendapenaren bidez, zerbitzu eginkizunen bidez edo metaketaren bidez.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Zalduondoko Udalarari, Arabako Lautadako Kuadrillari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Jakinarazten den foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 21a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren jarduneko zuzendaria

JON ANDA LÁZPITA